

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako Udalean administrari gisa eta administrari laguntzaile gisa zerbitzuan aldi baterako aritzeko bi lan poltsa sortzeko deialdiaren oinarriak

Udal honek, alkatearen azaroaren 29ko 614/2019 Ebazpenaren bidez, lan poltsak sortzeko oinarriak onetsi ditu.

1. Deialdiaren xedea

1.1. Deialdi honen xedea da bi lan poltsa sortzea Iruña Okako Udalaren langile beharrianak asetzeko, langileen aldi baterako ordezkapenak direla eta (bajak, oporraldiak, eszedentziak, lizentziak eta baimenak, hitzarmenean aurreikusiak).

1.2. Lan poltsen bitartez beteko diren lanpostuak Lanpostuen Zerrendan ageri dira.

1.3. Lan poltsen bitartez beteko diren lanpostu horiek I. eranskinean deskribatzen dira.

2. Lan poltsen kudeaketa

2.1. Iruña Okako Udalean aldi baterako zerbitzuetarako (ordezkapenentarako) langileen hautaketa arautu behar duten irizpide nagusiak ezartzen dituen arautegian jasotako prozeduraren arabera kudeatuko dira poltsak (7. zenbakiko ALHAO, 2018/01/17).

2.2. Hizkuntza eskakizuna esleituta eta derrigortasun data mugaeguneratuta daukaten lanpostuak aldi baterako betetzeko, behar den euskara maila egiaztatua duten pertsoneri bakarrik deituko zaie, poltsetan ageri diren hurrenkeran.

3. Lan poltsak handitzea eta lan poltsen iraupena

3.1. Gehienez ere, lan poltsek indarrean iraun dezakete harik eta poltsa berriak sortzen diren arte, lan poltsak sortzeko edo eguneratzeko hautapen prozesuetarako berariazko deialdien bitartez.

3.2. Udalak, egoki baderitzo, lan poltsak handitzeko deialdi publikoa egin ahalko du.

3.3. Lan poltsetan sartutako pertsona guztiek onartuak izan eta gero frogatu ahal izango dute eskatutako euskara maila. Horretarako, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzekoak, aurreikusten dituen tituluetatik edozein aurkeztu ahal izango dute.

Euskara maila frogatzen dutenak ez dituzte lekuz aldatuko lan poltsan, baina euskara jakin behar den lanpostuak betetzeko deitu ahal izango dituzte ordutik aurrera.

4. Izangaiek bete behar dituzten baldintzak

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko baldintza hauek bete behar dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak (5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, onetsia) 56. artikuluan xedatutakoaren arabera:

- Espainiako nazionalitatea izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak (5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, onetsia) 57. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

- Behar den besteko gaitasun funtzionala izatea atazak betetzeko.

- Hamasei urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditu gabe izatea.

- Diziplinako espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, herri administrazioei edo konstituzio organoei nahiz autonomia erkidegoetako estatutu organoei dagokienez, eta ebazpen judizialaren arabera erabateko desgaituntzarik edo desgaituntza berezirik ez izatea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, ezta, lan kontratuko langileen kasuan, zerbitzutik kendu edo desgaitu duten lanpostuan langileak zituen eginkizunen antzekoak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra bada, desgaitua edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.

- Eskatutako titulazioa izatea.

5. Kontratazio baldintzak eta eginkizunak

5.1. Kontratatu beharreko langileen lan baldintzak eta ordainsariak Iruña Okako Udaleko funtzionarioen eta lan kontratuko langileen hitzarmen kolektiboan (Udalhitz) ezarritakoak izango dira. Ordainsariak ordezkaturako langilearenen parekoak izango dira.

5.2. Ordezkapenatarako kontratatzen diren langileen eginkizunak ordezkaturako langileak zituen berberak izango dira.

6. Berariazko betekizunak

6.1. Betekizun orokorrez gainera, berariazko betekizun hauek bete beharko dira hautapen prozesuan parte hartzeko:

Administrari laguntzaileen poltsa:

a) Oinarrizko batxilergoaren titulua, eskola graduatuarena, lehen mailako lanbide heziketarena edo baliokidea izatea.

b) Bigarren hizkuntza eskakizunaren pareko euskara maila frogatzea.

c) IT txartela: Word aurreratua, Excel oinarrizkoa eta Outlook.

Administrariaren poltsa:

a) Goi mailako batxilergoaren titulua, bigarren mailako lanbide heziketarena edo baliokidea izatea.

b) Bigarren hizkuntza eskakizunaren pareko euskara maila frogatzea.

c) IT txartela: Word aurreratua, Excel aurreratua eta Outlook.

Hala ere, b) betekizuna betetzen ez duten pertsonen hautapen prozesuan parte hartu ahal izango dute, eta, kasu horretan,

— Eskatzen den euskara maila egiaztatuta eduki gabe aldi baterako kontrataziorako zerrendan edo lan poltsan sartzan diren izangaiak kontuan hartuko dira, soil-soilik, derrigortasun data mugaeguneratuta ez daukaten lanpostuak aldi baterako betetzeko.

7. Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

7.1. Lan poltsa bakoitzerako deialdian parte hartzeko eskabideak Iruña Okako alkateari zuzenduko zaizkio eta hango Udalaren erregistro orokorrean aurkeztuko dira bulego orduetan (09:30 - 13:30).

7.2. Lehenengo deialdiko eskabideak aurkezteko epea 20 egun balioudunekoa izango da, hura ALHAOn argitaratzen denetik hasita. Hurrengo deialdietako epeak garaia denean ezarriko dira.

7.3. Eskabidea oinarrien II. eta III. eranskinetan kopiatutako ereduaren arabera egingo da eta agiri hauek erantsiko zaizkio:

- Eskatutako titulazioaren fotokopia.
- 2. hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria.
- IT txartelaren egiaztagiriak.
- Alegatutako merezimenduen egiaztagiriak.

8. Izangaiak onartzea

8.1. Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda Udalaren ediktu oholean eta web orrialdean jarriko da ikusgai, eta hiru egun naturaleko epea emango da erreklamazioetarako eta akatsak zuzentzeko.

Erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, zerrenda hori behin betikotzat hartuko da, berariazko ebazpenik eman beharrik izan gabe.

8.2. Erreklamazioak, halakorik bada, alkatearen ebazpen baten bidez baietsi edo ezetsiko dira, eta onartutako izangaien behin betiko zerrenda onartuko da.

9. Balorazio batzordea

Balorazioa eta proposamenak soilik funtzionarioz osatutako Balorazio Batzorde batek egingo ditu. Lehendakaria, batzordekide bat eta idazkaria izango ditu batzordeak, eta alkateak ebazpen bidez izendatuko ditu. Kide guztiek izan beharko dute hautagaiei eskatzen zaien titulazio maila bera edo handiagoa. Titular bakoitzarentzat ordezko bat izendatuko da.

Behar diren aholkuak eskatu ahal izango zaizkio batzordeari, lan poltsan sartu nahi duten hautagaiak hautatzen eta baremazioa egiten laguntzeko.

10. Hautaketa prozesua

Izangaiak lan poltsan izango duten hurrenkera zehazteko, merezimenduen lehiaketa egingo da. Honako baremo honen arabera baloratuko dira merezimenduak:

Lan esperientzia: (bi poltsetan). Gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.

a) a) Administrazio Publikoko lanpostu batean aritu izana, antzeko edo pareko eginkizunetan; hau da, administrari laguntzailearen eginkizunetan:

0,40 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 6 puntu.

Dagokion erakundeak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

b) b) Erakunde pribatu bateko lanpostu batean aritu izana, antzeko edo pareko eginkizunetan; hau da, administrari laguntzailearen eginkizunetan:

0,20 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 4 puntu.

Gizarte Segurantzak igorritako lan bizitzaren agiria aurkeztu beharko da, lan kontratuarekin edo enpresak emandako egiaztagiarekin batera.

Prestakuntza ikastaroak: (bi poltsetan). Gehienez, 8 puntu.

Lanpostuarekin zerikusia duten ikastaro, mintegi, biltzar eta jardunaldietara joateagatik, baldin eta erakunde publikoek antolatuta eta eman badituzte, edo erakunde ofizialen batek homologatutako erakunde pribatuek.

0,01 puntu emango dira prestakuntza ordu bakoitzeko.

Ez dira kontuan hartuko 20 ordu baino gutxiagoko ikastaroak, eta ezta ere 250 orduetik gorakoak.

Ikastaroak ez dira aintzat hartuko iraupena adierazten ez bada.

Berdinketa badago, emandako zerbitzuetan puntu gehien duen izangaia gailenduko da, eta berdinketak jarraitzen badu, eskaera udaletxeko erregistro nagusian aurkeztu den datak erabakiko du hurrenkera.

11. Azken kalifikazioa

11.1. Merezimenduen balorazioa egin ondoren, izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko da, puntuazio hurrenkeraren arabera.

11.2. 3 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak egiteko, zerrenda iragarki taulan edo Udalaren web orrialdean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

11.3. Erreklamazioetarako epea amaituta, eta behin haiek ebatzita, lan poltsan dauden pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

11.4. Iruña Okako Udalak lan poltsak onetsiko ditu, eta izangaiak hurrenkeraren arabera agertuko dira zerrendan.

12. Aurkaratzea

Deialdi honen aurka, haren oinarrien aurka eta deialditik eta epaimahaiaren jardunetik sortzen diren administrazio egintza guztien aurka egin ahal izango da, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenean, ezarritako epe eta eretan.

Langraiz Oka, 2019ko abenduaren 2a

Alkate-lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA

I. eranskina

Azpieskala: administrariak.

Administrari lanpostua. Plaza kopurua: 1.

Taldea: C1.

Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2010/03/31.

Azpieskala: laguntzaileak.

• Administrari laguntzailea.

Plaza kopurua: 1. Taldea: C2.

Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2005/04/22.

• Administrari laguntzailea.

Plaza kopurua: 1. Taldea: C2.

Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2010/03/31.

• Administrari laguntzailea.

Plaza kopurua: 1. Taldea: C2.

Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2012/12/31.

• Administrari laguntzailea.

Plaza kopurua: 2. Taldea: C2.

Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe

II. eranskina

Eskabide eredu: Administrari laguntzaileak aldi baterako kontratatzeko lan poltsa sortzeko hautaprobetan onartua izan nadin eskatzea.

Izena..... 1. abizena.....
2. abizena..... adinez nagusia, NAN zenbakia,
telefonoa:..... e-maila:.....
eta helbide hau duena: Kalea..... Zenbakia.....
Solairua..... Atea..... Udalerria.....
Probintzia..... Posta kodea.....

Adierazten dut

Administrari laguntzaileak aldi baterako kontratatzeko lan poltsak osatzeko deialdia arautuko duten oinarrien berri izan dudala eta hautapen prozesuan onartua izan nadin nahi dudala.

Eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditudala eskabideak aurkezteko oinarri arauetan adierazitako epea amaitzen den egunean.

Ez nautela, diziplinazko espediente bidez, administrazio zerbitzutik baztertu, eta ez dudala ezintasunik edo ezgaitasunik, ez eta gaixotasun eta akats fisikorik, eginkizunak behar bezala egitea galarazten didanik.

Oinarrietan eskatutako egiaztagiri hauek eranstean ditut:

- Eskatutako tituluaren fotokopia.
- Hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria (behar izanez gero).
- IT txartelen egiaztagiria (behar izanez gero).

Alegatutako merezimenduak.

.....,koarena. (sinadura)

III. eranskina

Eskabide ereduak: Administrariak aldi baterako kontratatzeko lan poltsa sortzeko hautaprobetan onartua izan nadin eskatzea.

Izena..... 1. abizena.....
2. abizena adinez nagusia, NAN zenbakia,
telefonoa:..... e-maila:..... eta
helbide hau duena: Kalea..... Zenbakia..... Solairua.....
Atea..... Udalerria..... Probintzia.....
Posta kodea.....

Adierazten dut

Administrariak aldi baterako kontratatzeko lan poltsak osatzeko deialdia arautuko duten oinarrien berri izan dudala eta hautapen prozesuan onartua izan nadin nahi dudala.

Eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditudala eskabideak aurkezteko oinarri arauetan adierazitako epea amaitzen den egunean.

Ez nautela, diziplinazko espediente bidez, administrazio zerbitzutik baztertu, eta ez dudala ezintasunik edo ezgaitasunik, ez eta gaixotasun eta akats fisikorik, eginkizunak behar bezala egitea galarazten didanik.

Oinarrietan eskatutako egiaztagiri hauek eranstean ditut:

- Eskatutako tituluaren fotokopia.
- Hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria.
- IT txartelen egiaztagiria (behar izanez gero).
- Alegatutako merezimenduak.

.....,koarena. (sinadura)